

EZTABAIDA

INPERIOAREN TEOLOGIATIK HERRIAREN TEOLOGIARA

Felix Placer-en artukuluari ohar batzu eginez idatzi nuen idazkitxoan, besteren artean, **Herria** kontzaptua sakondu beharra nabarmendu nuen, Euskal Herrian askapen-teologia bidaratze-ko. Gaurkoz ez diot gai horri zuzenenan helduko; baina, bestalde, ezingo dut ahaztu, goiko tituluak berak horretara naramalako.

“Inperioaren teologia” edo “teologia inperiala” deitu izan da garai jakin batekoa: hau da, laugarren menditik hasi eta eskolastikarainokoa. Patrística handia da nagusi garai horretan. Mendebaldean, San Agustin da buru. Horrela deitzen den teologiaren garaia mende jakin batzutakoa baldin bada ere, Elizaren historiaren eta teologiaren mende luzetako bidea ireki zen bertan. Teologia katolikoari dagokionez, gure garai honetaraino luzatu da orduan abiaturiko bidea. Esan daiteke nolabait Vatikanoko II. Kontzilioan gainditu dela aro luze hori.

Ez gara hemen hasiko teologia inperialaren ezaugarri guztiak azaltzen; Baina ordutik hasirik ia gaur arte iraun duen teologia katolikobren ezaugarri nagusi bat nabarmendu nahi dut. K. Rahner-ek honla biltzen du Patrístikan abiaturiko eta gure garaietaraino iritsi den teologiaren historia: “La teología dentro de un círculo cultural particular y homogéneo”. Teologia inperialaren ezaugarri nagusienetarikoa da horixe, mende luzeetan iraun duena.

Besteren artean adiera kulturala du inperioak. Erromako inperioan Eliza ofizialdu zenean hasi zen, hain zuzen

ere, teologia inperiala, Elizaren egoera berriari erantzuten ziona. Elizaren beraren izaera ulertzean inperioa kontzeptua du azpian teologiak: Elizaren mundutartasuna eta unibertsaltasuna inperioa kontzeptuaren argitan argitzen dira funtsean. Horren arabera, Eliza bera da munduko inperio zabalaren eredurik bikainena: Inperio izpiritual gisa ulertzen da Eliza bera. Horren arabera adierazten dira Elizaren batasuna eta unibertsaltasuna. Horien sinboloa izan da erromatar Elizak ia oraintxe arte “bizirik” iraunerazi duen hizkuntza: latina.

Inperioaren zirkuluak aldatuz joan dira historian zehar: Mediterraneoan, Europa, Mendebaldea, lurbera osoa... Eta inperialaren zentruak ere mugitu egin izan dira. Baina historiaren eta politikaren kontzeptu inperialak oraintxe arte iraun dute; eta Eliza bera ikuspegi horretaz baliatu da. Teologia, berriz, ikuspegi horren adierazle eta estaltzailea izan da neurri handi batez.

Besteren artean, “garaien zantzuak” irakurtzen irakatsi digu Vatikanoko II. Kontzilioak. Kristau fedearen eginkizun funtsezkoetakoa da horixe. Eta teologiak zantzu horiek fedearen argitan ulertzen, bereizten eta aukeratzen saiatu behar du, Jainkoak gaur bertan aurrera daraman salbamen-historiaren bidekoak diren ala bide horren okertzaileak diren argituz.

Garaien zantzu historiko horietako bat Mendebaldeko Europaren “batasuna” da; hobe esanda, Europa horretako estatuen merkatal batasuna. Zalazarrik ez, gertakari horrek baduela esanahirik

kristau fedearentzat eta teologiazko gogetarako. Prozesu horren kontraesanak eta ilunaldiak handiegiak dira, ordea, gizabanako eta gizatalde guztientzako askapen-mezua den Ebanjeliotik begiratuz gero.

Kontraesan eta ilungune herietako bi besterik ez ditugu aipatuko oraingo honetan: bateki, “hirugarren munduari” buruz eta horren kontra mundu aberatsaren indartzea lortu nahi da; bestetik, Europako Herrien batasunaren kontra, Europako Estatuaren batasuna besterik ez da EEERena. Historiaren ikuspegi inperialaren menpe dago oraindik ere Europa; horren adierazgarria da “Hamabien batasuna”. Hamabi estatu horietan “minorizaturik” dauden Herriak, berriz, askozaz gehiago dira. Horiek bazterturik gelditu dira Europa batu horretan. Alderdi honi heldu nahi diot bereziki ondoko lerroetan.

Joan den abenduaren 27-30 bitartean HEMEGA/KONSEOren edo Europa Mendebaldeko estaturik gabeko Herrien lehen elkargunea gertatu da Bartzelonan. Bertan eskuhartu duten delegazioek eta lagunek ez dute aitzakirik aurkitu, gertakari hitorikotzat aitortzeko. Amaieran eman duten agiria honelako irrintziekin bukatzen da: “Herrien Europa altxatzen ari da. Gora Herrien Europa”. Bazarre horren berririk emateko una ez dugu oraingo hau; komuni- kabideek zabalduak dituzte.

Gure garaien zantzu nabarmen eta garrantzizkoetakoa da noski Europa mailan eta beste lekuetan Herrien altxatzea, zapalduta eta minorizatuta dauz-

katen estatuaren kontrako borrokan. Bide horretatik Estatuaren Europaren aurka Herrien Europa aldarrikatu du Bartzelonako batzarreak. Herrien eskubideen bitartek doan askapen-borrokarako batasunerako oinarriak ipini nahi izan ditu HEMEGA/KONSEOK.

Europa honetan kristau fedea bizi eta teologiazko gogoeta egin nahi duenak gure garaian zantzu hori beretu,

ulertu eta adierazten saiatuko da. Herrien askapen-borroka horrek hainbat alde ditu: hizkuntzazkoa, kulturazkoa, ekonomikoa, politikoa, antirrepresiboa, etab. Historiaren zentzu inperialista hausteak da borroka horren helburua.

Teologia inperialaren kritikatik abiatu behar du gaur askapen-teologiak Europa honetan. Inperioaren teologia-

ren ordezkioak, berriz, **Herriaren teologia** du izena, gaur egun Euskal Herrian eta Europan, Herrien askapen-bidea egin, ulertu eta adieraziko duena.

PAULO AGIRREBALTZATEGI

Irakurlegoa konturatua izango denez, Askapen Teologiari buruz zenbait lan kaleratu ditugu azkenetan. Eztatanda bat ere sortu da gure teologilarien artean. Lan guzti horiek argitara ematen saiatuko gara eztabaidarako osagarri izan daitezkeen batik bat.

Beraz, hiru ditugu zain. Egileak Plazido Erdozain, Guillermo Mujika eta Félix Placer. Hiru lanok Loiolan Euskal Herriko kristau elkarte herritarrek eta Apaiz Koordinakundearen artean egindako ikastaro batetan aurkeztu dira. Euskarazko bertsoian ematen ditugu oraingoan, agian arrazoiz bait dabilza Euskal Herriko askapen teologia ere euskaraz egin behar dela diotenak.

ASKAPEN - TEOLOGIA

Amerika Latinoan eta mundu zabalean

I. ASKAPEN-TEOLOGIAREN GERTAKARIA.

Gure gaurko munduak esperantzaz, kezka, beldurrez, etab. bizi duen gertakari horretara —Askapen-teologiaren, alegia— hurbilketa batzu egin nahi ditugu.

1.- Askapen-teologia ez da teoria hutsa; gertakari bat da.

a) 1969. Amerikako Estatu Batuetako "estatu-departamentua" kezkatuik zegoen Amerika Latinoan eratuz zihuan mugimenduarengatik, eta D. Rokefeller-en zuzendaritzapean jakitun-talde bat bidali zuen, Hegoamerikan sortzen ari zena "insitu" aztertzeko.

ONDORIOA: "Eliza Latinoamerikarrak daraman bidea orain bertan moztzen ez baldin bada, erreboluzioarreko egoerara iritsiko gara laisten ez baldin bada, erreboluzioarreko egoerara iritsiko gara laister". Jakitunen talde berri batek az-

tertut zituen datuak, eta plangintza orokor bat landu zuen, non eliza herritarren aurkako eraso benetako bat sartzen bait zen, eta aldi berean CIARI agintzen zitzaion eliza katolikoan eskua sartzeko eta hegoaldeko sektak inbaditzeko.

Eliza latinoamerikar osoa erlijiozko erasoan eta martirioaren azpian ezarri zuen plangintza horrek. Milaka kristau arduradun hil zituzten: ia ehun apaiz eta bi apezpiku horien artean. Arriskua handituz joan zen.

b) Ronald Reagan-en hauteskunde-kampaina. "Comisión de Santa Fe" zelakoak gobernuaren plana landu zuen. Horko puntu batek zera eskatzen zuen: "Estatu Batuek munduzabaleko ekimen ideologikoa berreskuratu behar dute" (III, F); zera erabaki zuen horretarako: "Estatu Batuetako kanpo-politikak aurrea hartu behar dio askapen-teologiari, Amerika Latinoan elizjendeak lantzen duen horri, eta ez bakarrik horren ondortik joan eta erreakzionatu... Amerika

Latinoan oso garrantzizkoa da elizaren egitekoa, libertate politikoari dagokionez. Zoritxarrez indar marxista-leninistek tresna politikotzat erabili dute eliza, jabego pribatuaren eta produkzio-sistema kapitalistaren aurka, erlijio-elkartean kristau ideiak baino komunistagoak direnak sartuz" (II, 3).

Hiru puntu nabarmendu behar ditugu: a) Libertate politiko, batetik, eta jabego pribatua eta sistema kapitalista, bestetik, gauza bera dira; b) teoriari berrari baino beldur handiago diote eliza herritarrek egiten duen horren erabilera; c) teologotzat daukate beren buruak, kristau ideiak zeintzu diren eta zeintzu ez diren xedatzeko.

Reagan agintera iritsi zenean, egin-tzetara eramane zuen plangintza hura: milioiz hornituriko erakundeak sortu zituen; hala nola, "Instituto de Religión y Democracia" delakoa; sistema demokratikoarekin bat zetorren teologia landu behar zuten horiek; bide horretatik